

Gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundea Hego Euskal Herrian

(Diffusion of the Press Written in Spanish in the Peninsular Basque Country)

Muxika Arrieta, Joxemari
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia
Miraconcha, 48
20007 Donostia-San Sebastián

BIBLID [1137-4462 (1999), 7; 39-67]

Azterlan honetan, HEHan (Hego Euskal Herrian) gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundea ikertu da. Eguneror, astero eta hilabetero edo bakanago argitaratzen diren aldizkarien egoera nolakoa den ikusi da. Argitalpen horiek zeintzu diren eta HEHan zenbateko zabalkundea duten aztertu da, herrialdeak batera eta banaka hartuta. Aipatzekoa da, sendiko 0,53 egunkari, 1,13 astekari eta 0,29 hilabetekari baino gehiago zabaltzen direla HEHan. Eta biztanleen proportzioan, euskal herrialdeetako zabalkundea handiagoa da, gaztelaniak hartzen duen eremu osokoa baino, orokorki hartuta. Bestalde, gaztelaniazko prentsaren ondoan euskarazkoak zabalkunde oso urria duela ikusi da.

Giltz-Hitzak: Gaztelaniaz idatzitako prentsa. Hego Euskal Herria. Herrialdea. Zabalkundea. Audentzia. Astekariak. Egunkariak. Hilabetekariak.

Esta investigación se ha centrado en el análisis de la difusión de la prensa escrita en castellano en el PVNP (País Vasco-Navarro Peninsular). Se ha expuesto la situación de la prensa de aparición diaria, semanal y mensual o más espaciada en el tiempo. Se han identificado las publicaciones así como los ejemplares distribuidos en el PVNP tanto por territorio histórico como en el conjunto del PVNP. Es de destacar su difusión por familia en el PVNP, que es de: 0,53 diarios, 1,13 semanarios y 0,29 mensuales en las publicaciones controladas. Y constatamos que, en relación a sus habitantes, la difusión de la prensa en castellano es mayor en el PVNP que en el ámbito global de su distribución. En cuanto a la prensa en euskara, se observa que su difusión es muy escasa en comparación a la publicada en castellano

Palabras Clave: Prensa escrita en castellano. País Vasco-Navarro Peninsular. Territorio histórico. Difusión. Audiencia. Semanarios. Diarios. Revistas mensuales.

Ce travail analyse la diffusion de la presse écrite en espagnole au PBP (Pays Basque Péninsulaire). On a exposé la situation de la presse selon la fréquence d'apparition: les journaux, les hebdomadaires et finalement les revues mensuelles ou ceux dont la fréquence d'apparition est supérieure à un mois. On a identifié ces publications et leur diffusion dans le PBP pour chaque département et puis dans la totalité du pays. Il faut remarquer que chaque famille lit 0,53 journaux, 1,13 hebdomadaires et 0,29 revues mensuelles. En prenant la totalité de la zone de diffusion de cette presse le plus haut pourcentage de revues par personne arrive au PBP. En outre, le pourcentage de la diffusion de la presse écrite en Basque part rapport à la totalité de la diffusion est réellement très faible.

Mots Clés: Presse écrite en espagnole. Pays Basque Péninsulaire. Département. Diffusion. Audience. Journaux. Hebdomadaire. Revues mensuelles.

1. SARRERA

Azterketa lan honen helburua, gaztelaniaz idatzitako prentsak Hego Euskal Herrian eta herrialde bakoitzean duen zabalkundearen xehetasunak ezagutzea da. Honetarako, 1996. urteko datuetan oinarritu gara.

Gaztelaniaz¹ idatzitako prentsan ez dugu sartzen katalanez eta galegoz idatzitako egunerari edo aldizkaririk. Euskarazkorik ere ez, noski.

Hego Euskal Herriko (HEHko) Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurraldeetan zabaltzen diren egunkariak eta aldizkariak kontuan hartu ditugu.

Lan honen metodologia eratzeko, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Informazio Zientzietako Fakultateko irakasle den Rosario de Mateoren liburuaz² baliatu gara.

Ikertu nahi ditugun xehetasunen artean daude: egunero, astero eta hilabetero edo bakanago argitaratzen diren aldizkariaren egoera; argitalpen horiek zeintzu diren eta biztanleen proportzioan duten zabalkundea.

Guk eraman dugun prozesua honako hau da:

* Hasteko, gaztelaniaz idatzitako prentsa zerrenda identifikatu, ondorengo lau pauso hauek jarraituz:

1. OJD³ren kontrolean dauden argitalpenak izan ditugu oinarri.

2. OJDren kontrolean dauden argitalpenen artean, estatuan 50.000 aletik gorako zabalpena dutenak bereiztu. Horrenbeste aleko zabalkundea ez izan arren, Nafarroako Foru Erkidegoan edo Euskal Autonomia Erkidegokoan argitaratzen direnak izanez gero, hauek ere kontsideratu ditugu.

3. Azterketako eremu bezala hartu ditugun lau herrialdeetako batean 4.000 aletik gora edo lauren artean 10.000 aletik gora banatzen direnak ere kontuan hartu ditugu.

4. Gainerakoak alde batera utzi ditugu, jarritako irizpideetan ez direlako sartzen.

Beraz, garbi izan behar dugu azterketa honetan kontuan hartutako prentsa baino gehiago iristen dela HEHra. Ez ditugu aintzakotzat hartu ale gutxi zabaltzen dituztelako, edo noizean behingo hartzaileak izanik, jarraipenik gabekoak direlako. Gure azterketarako ez ditugu adierazgarritzat jo. HEHan argitaratu arren OJDren kontrolean ez dauden aldizkariak ere alde batera utzi ditugu.

Egunkariei dagokienez eta baieztapen bila, zabalkundeari buruzko OJDren datuak, CIES⁴en irakurleriari buruzko datuekin alderatu ditugu.

* Lehen partean, lau herrialdeetan zabaltzen direla identifikatu ditugun argitalpenak bateratu egin ditugu, HEHko zabalkundea lortuz. Beste aldetik, prentsa horrek berak gaztelaniazko eremu osoan⁵ duen zabalkundea hartu dugu.

1. *Euskaldunon Egunkaria, Avui, El Punt, Segre, El 9 Nou*, katalanezko *El Periódico de Catalunya* etab.

2. ROSARIO DE MATEO, *Periodismo empresarial: El consumo de prensa escrita, análisis de caso*, MITRE, Barcelona 1984.

3. OJD *Oficina de Justificación de la Difusión*.

4. CIES *Centro de Investigaciones y Estudios Sociológicos*.

5. Zabalkunde osoa esaten dugunean, gaztelaniaz hitzegiten den lurralde guztietan zabaltzen diren aleak dauzka kontuan, nahiz estatuan zabaldu, nahiz estatutik kanpo.

Horrela eginez gero ikuspegi orokorra gorde ahal izango dugu eta era berean desbideraketa arriskutik ihes egingo dugu.

Identifikatu den prentsa hori guztia hiru multzotan sailkatu dugu maiztasunaren arabera (egunero, astero eta hilabetero edo bakanago argitaratzen dena) eta gaiaren arabera. Beraz, banaka, maiztasunaren arabera eta gaiaren arabera tratatu dugu HEHan aintzakotzat hartzeo hainako zabalkundea duela ikusi dugun gaztelaniaz idatzitako prentsa.

Gainera bilakaeraren hurbilpen bat egin ahal izateko, bi urteko datuak hartu eta alderatu ditugu: 1993koak eta 1996koak

* Bigarren partean gaztelaniaz idatzitako prentsak duen harrera aztertzen saiatu gara: eguneroko hedabideak alkarrekin alderatuz, egunkari irakurleak, irrati entzuleak eta telebista ikusleak biztanleriaren aldetik duten harrera eta aldizkariak (asterokoak eta hilerokoak edo bakanagoak) duten zabalkundea aztertuko ditugu.

Azterketa honetako aztergaia gaztelaniazko prentsa idatziaren zabalkundea da. Hala eta guztiz ere egokia da euskarazko prentsa idatziaren errealitatea kontuan hartzea, biztanleriak prentsari jartzen dion harreta jorratzen delako parte honetan eta biztanleri horren herena baino gehiago euskal hiztun eleanitza delako. Asmo honetarako bildu ahal izan ditugun datuak urriak dira. *Euskaldunon Egunkaria* besterik ez dago OJDren zerrendetan eta tokian tokiko edo euskarazko beste aldizkarietatik, bat bera ere ez dago, ez kontrol sistema horretan, ez besteetan. Arrazoi horiengatik, hurbilketa saio bat egitera mugatuko gara.

* Azkenik, ondorio orokor batzuk ateratzen ahaleginguduko gara.

2. GAZTELANIAZ IDATZITAKO PRENTSAREN ZABALKUNDEA

Jarri ditugun irizpideak erabiliz, prentsaren azterketa egin ondoren, 10 egunkari, 15 astekari eta hilabetero edo bakanago argitaratzen diren 15 aldizkari aurkitu ditugu.

Kontuan izan behar dugu, OJDren egunerokoen artean ez daudela, ez *Deia*, ez *Diario de Noticias* eta ez eta *El Periódico de Álava* ere. Euskaraz den *Euskaldunon Egunkaria* OJDn izan arren, ez dugu hemen sartu, gaztelaniazkoekin gabiltzalako.

OJDk kontrolatzen dituen argitalpen bakoitzaren batz besteko tirada eta zabalkundea dakartza.⁶ Azterketa honetarako zabalkundea hartzea erabaki dugu, zuzenago erantzuten diolako jakin nahi dugunari. Izan ere, kasu batzuetan, botatzen den ale tiradaren %70 baino ez da zabaltzen; adibide bezala *Interviú*rena jar daiteke.

Zabalkunde osoaren eremuan eguneroko eta asteroko batzuk sartzeko gelditzen diren arren, hauek oso gutxi dira eta hedadura txikia dute. Eta hileroko edo bakanagoen kasuan, aldizkari gehiago izan badira ere, zabalkunde txikia eta oso bakanak izanik, ez diegu garrantzirik eman.

HEHko eremuko zabalkundearen %100 aipatzen dugunean, kontuan izan behar da azterketa honetako irizpideetan sartu ditugunak bakarrik direla, hedapen txikikoak kanpoan utzita alegia.

6. OJD, "*Boletín de la Oficina de Justificación de la Difusión*". Azterketa honetan erabili ditugun datuak honako buletin zenbakietatik jaso ditugu:

-1993ko datuak, 1993ko 364, 365 eta 366 buletin zenbakietatik eta 1994ko 7, 8, 9 eta 12 zenbakietako buletinetatik.

-1996ko datuak, 1997ko 72, 73, 74, 75 eta 76 zenbakietako buletinetatik.

2.1. Gaztelaniaz idatzitako prentsa orokorrean

Lehen atal honetan gaztelaniaz idatzitako eta HEHan banatzen den prentsaren zabal-kundea aztertuko dugu, orokorrean⁷. Horrela, ikuspegi orokorra izango dugu. Prentsa hori guztia, hiru multzo handitan bildu dugu: egunkari, astekari eta hileroko edo bakanago argitaratuak. Bestalde, bi eremutan sailkatu dugu, HEHko zabalkundea eta zabalkunde osoa.

Gaztelaniaz idazten den prentsatik %8,89 inguru, Hego Euskal Herrian zabaltzen da (Ikus 1. taula)⁸.

1. taula: PRENTSAREN ZABALKUNDE OROKORRA 1996

Maiztasuna	Zabalkunde osoa (milakotan)	Hego Euskal Herriko zabalkundea Absolututan (milakotan)	%
Egunkariak	3.829	452	11,80
Astekariak	9.557	972	10,17
Hilabetekariak edo bakanagoak	5.450	252	4,64
Guztira	18.836	1.676	8,89

Gaur egungo zabalkunde hau 1993koarekin alderatuz gero, gorakada izan du: egunerokoetan %6,6 (28.000 ale) eta hilerokoetan %63 (96.900 ale). Eta beherakada, asterokoetan %6,9 (67.000 ale).

Hiru multzo hauetan biltzen den prentsak eragin ezberdina duela pentsatzea ez da harritzekoa, argitalpenak egunerokoak, asterokoak eta hilerokoak edo bakanagoak direlako. Gainera, ale kopurutan ere ezberdinak direnez, ez da erraza eragina ezagutzeko. Dena egunerokotara bihurtuz gero, hau da, asterokoak 7 egunez zatiitu eta hilerokoak 30 egunez, egunerokoaren garrantzi erlatiboa %70ekoa izango litzake, asterokoena %28koa eta hilerokoena %2koa.

Ondorengo 2.2, 2.3. eta 2.4. ataletan, hurrenez hurren, sakonago aztertzen da hau guztia.

Astekariaren atalean 15 aldizkari eta hilabetekariaren atalean beste 15 izan dira aukeratuak; horiek bakarrik kontuan hartuko ditugu. Eurak dira HEHan zabalkunde garrantzitsuenak; besteekin eraginari ez deritzogu esanguratsua.

2.2. Gaztelaniaz idatzitako egunkariak

HEHan zabaltzen diren egunerokoetatik garrantzia hartzen dutenak 10 dira (*Euskaldunon Egunkariak* gain). Aurrena zer zabalkunde duten aztertuko dugu eta ondoren, daukaten irakurleria.

7. Ez ditugu sartu HEHan doan zabaltzen diren estatuko hainbat aldizkari. Aldizkari horiek 30 bat dira, hilabetekoa edo bakanago argitaratuak, guztira 2.639 ale botatzen dituzte eta berrietatik HEHan banatzen direnak %2,5 baino gutxiago dira. Zabaldutakoaren adibide gisara: unibertsitarioentzakoak, hirietako merkatuetakoak, tren edo hegazkin bidaiarientzakoak, berebilen ingurukoak, eta "*páginas amarillas*" dira. OsGo banaka zabaltzen diren beste aldizkari batzuk ere ez ditugu sartu. Alderantziz, HEHan zabalkunde handia dutelako, doan badira ere, sartu egin ditugu "*Que fácil comprar y vender*" asterokoetan eta "*Estrenos actuales*", "*Club Rac Vasco Navarro*" eta "*Sthilo Musical*" hilerokoetan.

8. Taula guztiak lanaren egileak moldatuak dira.

2.2.1. Egunkarien zabalkunde

Zabalkunde osoan 80 aldizkarik zabaltzen dituzten aleak HEHan 10 aldizkarik zabaltzen dituztenekin alderatuz, hauek %11,80 inguru dira (ikus 2. taula).

2. taula: EGUNKARIEN ZABALKUNDEA 1996

Egunkariak arloka	Zabalkunde osoa			HEHko Zabalkunde			Alderaketa %etan	
	Egunkariak	Aleak	%	Egunkariak	Aleak	%	Egunkariak	Aleak
Orokorra	70	2.900	75,74	9	418,5	92,61	12,85	14,43
Kirola	6	812	21,20	1	33,4	7,39	16,67	4,11
Batzuk ⁹	4	117	3,06	-	-	-	-	-
Guztira	80	3.829	100	10	451,9	100	-	11,80

HEHan zabaltzen diren egunerokoetan, informazio orokorra –informazio ez espezializatu, alegia– ematen duten egunkariak dira gehiena erosten direnak. Lehenak guztiaren %92,61era iristen dira eta kiroletakoak %7,39ra besterik ez. Zabalkunde osoan banatzen direnek alde txikiagoa dute: orokorrekoak, %75,74 eta kiroletakoak %21,20.

HEHko eremuan zabaltzen direnetan, guztira %11,80koa bada, arloka, gai orokorrekoak %14,43 dira eta kiroletakoak %4,11. Egunkarien artean informazio orokorra ematen dutenak asko gehiago argitaratzen eta zabaltzen dira.

HEHan banatzen direnetatik, 10 egunkarik (ikus 3. taula) gainditzen dituzte jarritako iriztiak. Gainerakoek, denen artean HEHan %2,50ko zabalkunde baina ez dute.

Lehenengo lau egunerokoak HEHan bertan argitaratzen dira. Lauren artean 330.559 ale zabaltzen dituzte egunero, hau da guztien %68,15.

Taulan garbi ikusten da herrialde bakoitzak bere aukerako egunkaria duela, besteen aldean asko gehiago zabaltzen dena, lidergoa hartzen duena. Hau da albiste orokorrek ematen dituzten egunerokoen merkatua (kiroletakoak alde batera utzita): *El Correo Español*ek Araban %58,6ko merkatua du; *El Correo Español*ek berak Bizkaian %53,3ko merkatua; *Diario Vasco* Gipuzkoan %66,7ko merkatua eta *Diario de Navarra* Nafarroan %60,5ekoa (ikus 4. taula).

Azpitarratu dugun eremuan, egunkari hauen nagusitasun itzelaren arrazoi azaltzerakoan, bat gatz Mari Jose Cantalapiedrak bere tesian¹⁰ erakusten duenarekin. Aztertzaille honentzat, eskualde eta herrietako albisteak tratamendu egokia ematean datza zabalkundearen funtsa.

9. Osasunari buruzko "*El Correo Diario Médico*" doan zabaltzen den egunerokoa da. HEHan 4.076 ale zabaltzen ditu. Ekonomiaz diharduten egunkarien kasuan, "*Expansión*"ek 5.200 ale zabaltzen ditu HEHan eta bera da gehienkoa. Ekonomiaz ari diren egunkari guztien artean, berriz, zabalkunde guztiaren %1,24ra dira HEHan eta eremu osoan %1,88. Bi eremuek ez dute alde handirik.

10. CANTALAPIEDRA, M. J. *La información local en los periódicos de Bizkaia*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo 1996.

Lidergoa duten hiru eguneroko hauei buruz Sabin Oregiren azterketak¹¹ garbi uzten du nagusitasun hau lehendik datorrela. Azpimarratzekoa dela iruditzen zaigu, Francoren diktadura garaian ere, HEHan nagusiak zirela eta eroso betetzen zutela euren eginkizuna. Bestalde, euren izenburuek ez dute aldakuntza handirik izan eta erabat gatzelaniaz izanez jarraitzen dute.

3. taula: EGUNKARIEN ZABALKUNDEA 1996

Egunerokoa *	Zabalkunde osoa (milako)	HEHko zabalkunde	Zabalkunde herrialdeka			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Orokorra (1)						
El Correo Español El P.	136	125.435 (92,23)	24.011 (19,14)	97.648 (77,85)	3.776 (3,01)	0 (0,00)
Diario Vasco	94 (96,97)	91.156 (0,64)	583 (0,99)	903 (96,21)	87.703 (2,16)	1.967
Diario de Navarra	64	62.105 (97,04)	159 (0,26)	254 (0,41)	527 (0,85)	61.165 (98,49)
Egin	53 (97,85)	51.863 (7,70)	3.991 (39,86)	20.672 (39,47)	20.471 (12,97)	6.729
El Mundo del País Vasco	260 (9,42)	24.498 (10,85)	2.658 (59,36)	14.542 (20,11)	4.926 (9,68)	2.372
El País (2)	414 (2,99)	12.365 (10,70)	1.323 (40,47)	5.004 (26,42)	3.267 (22,41)	2.771
El Periódico de Álava (3)	4,4	4.329 (98,39)	4.329 (100,00)	0 (0,00)	0 (0,00)	0 (0,00)
Diario de Noticias (4)	21,3	21.212 (99,59)	0 (0,00)	0 (0,00)	0 (0,00)	21.212 (100,00)
Deia (5)	25,6 (99,77)	25.541 (5,08)	1.298 (88,14)	22.511 (5,09)	1.299 (1,70)	433
Kirola						
Marca	496 (6,74)	33.425 (9,94)	3.323 (54,30)	18.150 (22,55)	7.538 (13,21)	4.414
Guztira	1.568	451.929 (9,22)	41.675 (39,76)	179.684 (28,66)	129.507 (22,36)	101.063

11. OREGI, S. "Les données montrent aussi la domination d'un des cotidiens dans chacune des provinces: *El Correo en Araba et Bizkaia, El Diario Vasco en Gipuzkoa, Diario de Navarra en Nafarroa*", 457 orria, in *Contribution des médias basques à l'extensión fonctionnelle de l'euskara: de l'intérêt des socio-types linguistiques. Analyse prospective*. Thèse de Doctorat de l'Institut des Sciences de l'Information et de la Communication. Université Michel de Montagne-Bordeaux III.

* Parentesi artean %tan.

1 Egunerokoak igandetan %25 inguru gehiago saltzen dira eta hainbat kasutan, %40 ere bai, egunerokoekin zabaltzen diren gehigarrien zabalkundeak adierazten duen bezela. Euskaraz izanik *Euskaldunon Egunkaria* ez dugu sartu: Honen zabalkundeak 1996an guztira 11.765 alekoa zen, eta herrialdeka: Araban 823; Bizkaian 4.028; Gipuzkoan 5.069 eta Nafarroan 945. 1993an beriz, Araban 560; Bizkaian 3.864; Gipuzkoan 5.264 eta Nafarroan 1.064. Guztira, 11.200 ale.

2 1997an hasi zuen *edición País Vasco deritzana argitaratzen*. Hasieran sendo bazirudien ere, gerora behera egin du eta ez du HEHan bere zabalkunde hazi (Ikus OJDren *Avance informativo* abril 1998).

3 Ez dago OJDren kontrolatan. Beraz hemen jarri ditugun datuak estimazio bat dira. CIESeK egindako audientzia azterketan azaltzen diren datuak erabili ditugu kalkulua egiteko. Horretarako, OJDk *El País*, *Egin* eta *Diario de Navarra*ri buruz emandako HEHko hedadura eta CIESen audientziekin atera ditugu aleko zenbateko irakurleak dituzten: *El País*ek 3,56; *Eginek* 2,31 eta *Diario de Navarra*k 3,27. Audientzia txikiena, hau da 2,31, hartu dugu ale kopurua ez gutxitzeko.

4 Ikus 3. *Diario de Noticias* 1995ean hasi zen Nafarroan. Aurretik *Navarra Hoy* argitaratzen zen, 18.000 aleekin. Beraz, lehenagoaren tamainako zabalkundeak izaten jarraitzen du berriak (ikus CIES).

5 Ikus 3.

Liderraren atzetik, herrialde gehienetan bigarren bat ageri da, oso urrun bada ere. Araban, *El Periódico de Álava* eta *Egin*; Bizkaian, *Deia* eta *Egin*; Gipuzkoan, *Egin*; eta Nafarroan, *Diario de Noticias*. Aurrekoen atzetik, eta herrialde guztietan, *El Mundo del País Vasco* edo *El País* baino gehiago zabaltzen da *Marca*.

Bilakaerari buruz, albiste orokorrak ematen dituzten egunerokoek gehiagorako joera izan dute azken hiru urteetan: *El Correo Español* %2,28 (2.798 ale) gehitu da, *Egin* %2,35 (1.193 ale) eta *El Mundo del País Vasco* %2,83 (4.128 ale). Alderantziz, murrizketa jasan dute eta beherakako joera dute: *El País* %11,54 (1.550 ale) eta *Deia* %27,20 (9.500 ale). Gainerakoetan ez da aldaketa seinalerik nabaritzen (ikus 5. taula).

Kioletako egunkarietan *Marca* gorantz doa, indarrean. Estatuan %49 ko hazkundera izan du eta HEHan %19,24, hau da, 5.403 aleko hazkundera.

Azken hiru urte hauetan *Navarra Hoy*¹² desagertu da (1995ean) eta bere lekua *Diario de Noticias*ek (1994an sortua) hartu du. Honek, zabalkunde aldetik antzeko hedadura hartzen du.

Orain arte OJDren datuekin ari gara, egunkariak duten zabalkundeaz. Hurrengo lerroetan, irakurleek egunkari idatziei egiten dien harreraz arituko gara CIES¹³en datuez baliatuz. Hau da, irakurleen ikuspuntutik aztertuko dugu egunkariaren eragina. Aurretik egin dugunaren osagarri eta kontrapuntua izango da hau.

2.2.2. Egunkariaren irakurleria


Irakurle aldetik egunkariak duten harrera aztertuz, zabalkundearen azterketak erakutsi diguna aldatu al dezake? Hauxe da atal honetan argitu nahi dugun galdera. Honetarako, eguneroko prentsa idatziak duen irakurleria aztertuko dugu.

12. OREGI, S. *Análisis de lanzamiento de "Navarra Hoy" in Cuadernos de Sección. Medios de Comunicación nº 4*. Eusko Ikaskuntza, 1991, 140-162 orria.


13. CIES *Centro de Investigaciones y Estudios Sociológicos*. Iruñea/Pamplona 1997.

4.grafikoa/taula: EGUNKARIAK 1996


HEHan 1996




Araban 1996




Bizkaiian 1996



Gipuzkoan 1996



Nafarroan 1996



* Hemendik aurrera erlojuaren orratzen zentzuan jarraitu leienda

CIESek 21 egunkariren izenak aipatzen ditu 1997ko urteari buruzko azterketan. Egunkari hauetatik 11k, bakoitzak egunero 10.000 irakurle edo gehiago zeukan HEHan. Urte honetan eguneroko berri bat sortu zen Araban, *El Periódico de Álava*. Hauxe litzateke garrantzizko aldakuntza bakarra.

Gaztelaniaz idatzitako prentsari buruz ari garen arren euskaraz idatzitako egunkari bakarra CIESen zerrendan sartua dago eta guk ez dugu kendu. Horrela, egunkariei buruzko ikuspegia osoagoa izango dugu (ikus 6. taula).

CIESen ikerketako datuek diotenez, HEHan, eguneroko prentsa idatziak 1.531.000 irakurle ditu. Honek esan nahi du balizko irakurleen¹⁴ %53,90ek irakurtzen dituztela egunerokoak.

5. taula: EGUNKARIEN ZABALKUNDEA 1993

Egunerokoa *	Zabalkunde osoa (milako)	HEHko zabalkundea	Zabalkundea herrialdeka			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Orokorra						
El Correo	134	122.637	22.847	94.805	4.985	0
Español El P.		(91,52)	(18,63)	(77,31)	(4,06)	(0,00)
Diario Vasco	93,5 (97,98)	91.611 (1,00)	916 (1,08)	991 (95,86)	87.815 (2,06)	1.889
Diario de Navarra	63,3	61.934 (99,99)	139 (0,22)	260 (0,42)	615 (0,99)	60.920 (98,36)
Egin	51,4 (98,58)	50.670 (7,71)	3.906 (39,75)	20.139 (37,88)	19.470 (13,92)	7.155
El Mundo del País Vasco	210	20.370 (9,70)	2.457 (12,06)	11.067 (54,33)	4.998 (24,54)	1.848 (9,07)
El País	401 (3,47)	13.915 (10,95)	1.524 (40,63)	5.654 (25,36)	3.529 (23,05)	3.208
Deia	35,9 (97,56)	35.022 (3,85)	1.347 (87,13)	30.513 (7,68)	2.691 (1,29)	451
Kirola						
Marca	333,3 (8,41)	28.031 (9,15)	2.566 (58,50)	16.398 (18,90)	5.299 (13,44)	3.766
Guztira	1.322	424.190	35.702 (8,42)	179.827 (42,39)	129.402 (30,51)	79.237 (18,68)

* Parentesi artean %tan

14. CIESen azterketetan irakurle potentziala 14 urtetik gorako pertsona da.

6. taula: EGUNKARIEN IRAKURLEAK 1997 (milakotan) (1)

Egunerokoa	HEH	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
El Correo	501	93	398	10	0
Diario Vasco	316	0	0	305	11
Diario de Na.	203	0	0	0	203
Egin	120	7	39	55	19
El Mundo PV	95	9	52	22	12
Marca	82	9	44	14	15
Deia	59	3	52	3	1
Diario de Not.	49	0	0	0	49
El Pais	44	5	15	10	14
Egunkaria	26	1	10	12	3
El Periódico	10	10	0	0	0
Besteak (2)	26	2	10	5	9
Guztira	1.531	139	620	436	336

(1) Iturria CIES. Eustatek irakurle kopuruari buruz ematen dituen datuak bestelakoak dira: *El Correo*, 597.000; *Diario Vasco*, 343.000; *Egini*, 107.000; *El Mundo del P.V.*, 98.000; *Deiari*, 109.000; eta *Euskaldunon Egunkariari*, 40.000 irakurle.

(2) Besteak, multzoan sartu diren egunerokoak 10.000 irakurle baino gutxiago dituztenak dira. Hau da, *Diario 16*, 1.000 irakurleekin; *ABC*, 8.000ekin; *Heraldo de Aragón*, 1.000ekin; *AS* 3.000ekin; *La Vanguardia*, 1.000ekin; 5 Dias eta *Expansión*, 1.000ekin eta oso irakurle gutxi badituzte ere, zabaltzen dira beste hauek ere: *Ya*, *Diario Montañés* eta *Diario de Rioja*. Denen artean % 1,69 ko zabalkundea dute. *El Periódico de Álava* 1997an hasi zen.

Taula honetan 1997an HEHan egunero irakurtzen ziren egunkari bakoitza herrialdeka zerrendatzen da. Garbi agertzen da herrialde bakoitzak bere egunkari liderra duela, besteen aldean asko irakurtzen dena. Horrela, Araban %66,9k *El Correo Español* irakurtzen du, Bizkaian %64,2k egunkari bera, Gipuzkoan %70ek *Diario Vasco* eta Nafarroan %60,4ek *Diario de Navarra*. Badira lehen OJDren datuek ematen zutenetik gorantzako alde txiki batzuk. Kontuan izan datu haiek 1996ko zabalkundeari zegozkiela eta datu hauek 1997ko irakurleriari dagozkiela. Nafarroan izan ezik, aldeak zentzu berean daude; hemen ez dago alderik. Lehen erakutsi dugun bezala, lurralde gehienetan, bigarren egunkari bat ageri da, baina nabarmen atzerago.

Hamar mila irakurle baino gehiago duten egunkariak HEHko eremua nola partitzen duten ikus daiteke 7. taulan.

7. taula: EGUNKARIEN IRAKURLE BANAKETA 1996

Egunkaria	HEH (milakotan)	%
El Correo	501	32,72
Diario Vasco	316	20,64
Diario de Navarra	203	13,26
Egin	120	7,84
El Mundo PV	95	6,21
Marca	82	5,36
Deia	59	3,85
Diario de Not	49	3,20
El País	44	2,87
Euskaldunon Egunkaria	26	1,70
El Periódico	10	0,65
Besteak	26	1,70
Guztira	1.531	100,00

Taulan ikus daitekeenez, hamar mila irakurle baino gehiago duten hiru egunkari printzipal-en artean %66,62ko irakurleria hartzen dute eta beste zortzi egunkariaren artean %31,38a.

Zabalkunde handiena duten egunkariak irakurleria ere handiagoa dute. Esan dena 8. taulan ikus daiteke. Egunkarien arteko aldeak izugarriak dira.

8. taula: EGUNKARIEN IRAKURLE INDIZEA

Egunkaria	Irakurle indizea
El Correo	3,99
Diario Vasco	3,46
Diario de Navarra	3,27
Egin	2,31
El Mundo PV	3,88
Marca	2,45
El País	3,56
Euskaldunon Egunkaria	2,22

Deia, *Diario de Noticias* eta *El Periódico de Álava* ez daude OJDren kontrollean.

2.2.3. Ondorioak

Azpirarra daiteke bi aldeetatik hartutako datuek, zabalkundea eta irakurleria, antzerako emaitzetara eraman gaituztela. Zabalkundeari buruzko azterketatik ateratako emaitzak baieztatu egiten dira, irakurleria aldetik egindako azterketarekin.

2.3. Gaztelaniaz idatzitako astekariak

Atal honetan astero argitaratzen diren aldizkariak aztertuko ditugu. Lehenengo gaiaren arabera sailkatuta eta gero banan-banan hartuta aztertuko ditugu.

9. taula: ASTEKARIEN ZABALKUNDEA 1996

Astekariak arloka	Zabalkunde osoa			HEHko Zabalkunde			Alderaketa %etan	
	Astekariak	Aleak		Astekariak	Aleak		Astekariak	Aleak
		Absolutuak (milakotan)	%		Absolutuak (milakotan)	%		
Gehigarriak	9	4.821	50,44	4	730,5	75,15	44,4	15,15
Emakumea	6	2.588	27,08	6	177,4	18,25	100	6,85
Telebista ¹⁵	6	994	10,40	2	23,5	2,42	33,3	2,36
Musika	4	3.84	4,02	1	19,1	1,97	25,0	4,97
Orokorrak	3	334	3,49	1	14,0	1,44	33,3	4,19
Ekonomia ¹⁶	1	8,4	0,09	1	7,5	0,77	-	-
Batzuk ¹⁷	8	428	4,53	-	-	-	-	-
Guztira	37	9.557	100	15	972¹⁸	100		

Astekarien multzo honetan ditugun aldizkarien artean (ikus 9. taula), gehigarriak nabarmentzen dira. Eredu osoan zabaltzen diren gehigarrien %15,15 HEHan banatzen dira, 730.500 ale. HEHko kasuan %75,15 da euren partea eta zabalkunde osoan %50,44. Ezin da ahaztu astero saltzen diren gehigarri hauek asteburuetakoko egunerokoekin batera saltzen direla, parte handi batean euren arrakastaren esplikazioa hortik datorkielarik. Gehigarri hauek denak, baita HEHan argitaratzen diren egunkariekin¹⁹ zabaltzen direnak ere, Madrilan argitaratuak dira. Editorial talde bakoitzak gehigarri bera du bere egunkari guztientzat.

Bi eremuetan zabaltzen diren aldizkarietan, emakumeei buruzkoetan ez dago alderik, astekari berberak dira HEHan zabaltzen direnak ere. Beste aldizkariekin ez da berdina gerta-

15. Canal Plus-ek bere *Canal + Revista* astekaria, 1.266.000 harpideren artean banatzen du doan. Ez dugu sartu telebista aldizkariekin batera OJDn azaltzen ez delako.

16. Parte bat doan EAEn banatzen den hamabostekaria da *Empresa XXI*. Nafarrak hilabetekaria dauka, *Negocios en Navarra*.

17. Lehen esana dugun bezala, ez dira aukeratu sailean sartzen zabalkunde txikia dutelako. HEHan 27.500 ale saltzen dira eta hauei gehitu behar zaie "*Qué fácil comprar y vender*" Bizkaian argitaratu eta bertan doan zabaltzen dena. Honek 153.000 ale zabaltzen ditu hamabostero.

18. Pello ZUBIRIA, ARGIAko zuzendariak esaten du Euskal Herrian zabaltzen diren astekariak 634.000 ale direla (ikus *Euskaldunon Egunkaria*, 04-04-98).

19. *Grupo Correo de Comunicación*ek argitaratzen duen *El Suplemento Semanal* eta *El Semanal TV* bera zabaltzen da HEHko *El Correo Español*-*El Pueblo Vasco*, *El Diario Vasco* eta *Diario de Navarra*. Eta berberak dira, beste 19 lurraldetako egunkarietakoak ere.

tzen. Gehigarrietan 9tik 4 eta telebistakoetan 6tik 2, zabalitzen dira HEHan. Gainerakoek ez dira esanguratsuak.

Astero zabalitzen diren aldizkarien artean, gehigarriak, emakumeei zuzendutakoak eta telebistei buruzkoak dira gehien saltzen direnak. Hiruren artean %95 baino gehiago egiten dute.

Bi eremuetako irakurleek arlo bakoitzari jartzen dieten arreta ez da berdina: HEHko eremuan gehigarriak %75,15 (emakumeei zuzendutakoak %18,25, eta telebistei buruzkoak %2,42) badira, zabalkunde osoko eremuan, gehigarriak %50,44 (emakumeei zuzendutakoak %27,08, eta telebistei buruzkoak %10,40) dira. Bistan dago bi eremuetan irakurleen joerak duen aldea.

“Batzuk” izeneko multzoan sartu dugu euskal eremuan zabalitzen den publizitateari buruzko “*Qué fácil comprar y vender*” hamabostekaria. Honek, doan zabaldua, 153.000 ale zabalitzen ditu, hau da %13,60. Kontuan hartzeko tamainako zabalkundea daukala esan daiteke.

HEHan zabalitzen diren aldizkariak banan-banan zerrendatu ditugu 10. taulan, zabalkunde handiena dutenetik txikiena dutenera ordenatuak, bakoitzari bere arloa errespetatuz. Hala ere, lauki horretan agertzen ez ditugun arren, garbi utzi nahi dugu aldizkari gehiago badirela.

“Zabalkunde osoa” zutabearen datoen zifrak, guztira 7,2 milioi dira eta HEHko eremuan zabalitzen diren aldizkariak eremu osoan duten zabalpena adierazten dute.

Azken urte hauetako gora-beherak aztertzerakoan, orokorrean, astekariak %6,5eko beherakada jasan dutela ikusi dugu (ikus 10, 11 eta 12 taulak), bai HEHko eremuan eta baita eremu osoan ere:

- Egunkari gehigarrien multzoak %3,7ko beherakada izan du. Beherakadatik ez da aldizkariarik salbatu, murrizketa HEHan zabalitzen diren guztiek jasan baitute.
- Emakumeei zuzendutakoak ere beherakada izan dute, %9,04. Hauen artean salbuespen bat egin behar da, *Miak* %1,30eko igoera izan duelako.
- Telebistei buruzkoak izugarrizko beherakada izan dute, %61,50koa hain zuzen.
- Musikari buruzko *Super Popek* gorakada izan du, ia laukoiztu egin delako, eta albiste orokorrak ematen dituen *Interviú* ere bai, % 23ko gorakada izan du. *Super Popek* estatuko eremuan ere gorakada izan du, hemen hirukoiztu egin delarik bere zabalpena.

Herrialdeka egindako azterketan ez dago alde nabarmenik, denetan *El Suplemento Semanal* eta *El Semanal TV* dira zabalduenak. Herrialde bakoitzeko zabalkunde nagusia duen egunkariari atxikita datozen astekariak dira. Beste astekari guztiak, alde handiz, atzetik gelditzen dira. Aldea astekarien %30 inguruko zabalkundea izatetik %9 izatera jaisten da.

Herrialdekako zabalkundea azaltzen duen grafikoen garbi azaltzen zaigu herrialde bakoitzak HEHko zabalkunde orokorraren bide bera edo oso antzekoa daramala aldizkari aldizkari. Aldeak biztanleen arabera dira batez ere.

Telebistei buruzko aldizkariak herrialde guztietan egin dute behera (ikus 13. taula). Emakumeei zuzendutakoetan, Araban gertatzen den beherakada nabari daiteke, %22,01 izatetik %17,85 izatera igaro baitira; alderantziz, Bizkaian gorakada: %18,49 izatetik %21,05 izatera igarotzen dira. Gehigarriek Araban gora egiten dute %68,14tik 73,80ra. Beste lurraldeetan ez dago aldaketarik, berdintsu jarraitzen dute.

10. taula: ASTEKARIEN ZABALKUNDEA 1996

Astekaria *	Zabalkunde osoa (milako)	HEHko zabalkunde	Zabalkunde herrialdeka			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Gehigarriak						
El suplemento semanal	1.134	335.518 (29,58)	29.945 (8,93)	119.439 (35,60)	106.168 (31,64)	79.966 (23,83)
El semanal TV	997 (32,58)	324.858 (9,30)	30.212 (37,17)	120.750 (32,41)	105.295 (21,12)	68.601
El País semanal	1.005	41.819 (4,16)	4.624 (11,06)	17.391 (41,59)	11.159 (26,68)	8.645 (20,67)
La revista de El Mundo	417 95	28.211 (6,77)	3.375 (11,96)	14.793 (52,44)	6.084 (21,57)	3.959 (14,03)
Emakumea						
Pronto	769 (6,70)	51.545 (10,62)	5.475 (45,66)	23.534 (26,90)	13.864 (16,83)	8.674
Hola	622 (6,63)	41.258 (7,84)	3.236 (43,14)	17.798 (31,07)	12.819 (17,95)	7.405
Lecturas	339 (7,10)	24.067 (6,53)	1.571 (47,50)	11.432 (28,47)	6.852 (17,50)	4.212
Mía	275 (8,43)	23.183 (10,39)	2.409 (42,97)	9.961 (28,39)	6.582 (18,25)	4.231
Semana	270 (7,03)	18.988 (8,25)	1.567 (42,25)	8.022 (28,88)	5.483 (20,62)	3.916
Diez minutos	313 (5,87)	18.388 (12,12)	2.228 (54,10)	9.947 (33,79)	6.213 (18,77)	3.452
Telebista						
Supertele	337 (4,15)	13.997 (14,09)	1.972 (43,69)	6.115 (20,41)	2.857 (21,64)	3.029
Teleindiscreta	162 (5,87)	9.508 (11,67)	1.110 (53,11)	5.050 (19,77)	1.880 (15,44)	1.468
Musika						
SuperPop (1)	384 (4,99)	19.143 (11,42)	2.187 (45,49)	8.708 (22,45)	4.297 (20,64)	3.951
Orokorra						
Interviú	170 (8,26)	14.022 (12,71)	1.782 (43,70)	6.128 (27,49)	3.854 (16,10)	2.258
Ekonomia						
Empresa XXI (2)	8,43 (89,03)	7.505 (8,85)	664 (57,81)	4.339 (31,10)	2.334 (2,24)	168
Guztira						
	(13,50)	972.010 (9,50)	92.357 (39,44)	383.407 (30,43)	295.741 (20,98)	203.935
Publizitatea						
Que fácil comp. y vender (3)	153	153.000 (100,00)	0 (0,00)	153.000 (100,00)	0 (0,00)	0 (0,00)

* Parentesi artean %tan

(1) Hamabosterokoa da. 1993an 4.720 ale zabaltzen zituen.

(2) Hamabosterokoa da. Batzuk doan eta beste batzuk saldu egiten ditu


(3) Hamabostero eta doan. 1993 an 167.000 ale zabaltzen zituen.

11. taula: ASTEKARIEN ZABALKUNDEA 1993

Astekaria *	Zabalkunde osoa (milako)	HEHko zabalkunde	Zabalkunde herrialdeka			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Gehigarriak						
El suplemento semanal	1.129	338.700 (30,00)	28.902 (8,53)	116.287 (34,33)	107.932 (31,87)	85.578 (25,27)
El País semanal	1.084	48.455 (4,47)	5.420 (11,19)	21.355 (44,07)	12.791 (26,40)	8.889 (18,34)
El semanal TV	1.008 (33,57)	338.386 (9,38)	31.752 (37,77)	127.814 (32,53)	110.074 (20,32)	68.746
La revista de El Mundo	395 95	33.101 (8,38)	3.911 (11,82)	17.578 (53,10)	7.229 (21,84)	4.385 (13,25)
Emakumea						
Pronto	697,5 (7,78)	54.266 (10,67)	5.789 (45,24)	24.552 (28,02)	15.206 (16,07)	8.719
Hola	659 (6,78)	44.680 (15,93)	7.117 (40,71)	18.188 (29,35)	13.114 (14,01)	6.261
Lecturas	336 (7,50)	25.200 (8,53)	2.150 (46,40)	11.693 (28,00)	7.056 (17,07)	4.301
Mia	284,7 (8,04)	22.890 (10,82)	2.477 (43,04)	9.851 (28,36)	6.491 (17,79)	4.071
Semana	322 (7,63)	24.569 (11,67)	2.866 (39,71)	9.757 (28,05)	6.891 (20,57)	5.055
Diez minutos	307 (7,64)	23.455 (9,42)	2.210 (47,78)	11.206 (27,23)	6.386 (15,57)	3.653
Telebista						
Supertele	684 (4,97)	33.995 (12,27)	4.172 (45,47)	15.458 (23,14)	7.866 (19,11)	6.498
Teleindiscreta	498,4 (5,42)	27.013 (11,07)	2.990 (50,00)	13.507 (23,06)	6.230 (15,87)	4.286
Musika						
SuperPop	114 (4,14)	4.720 (11,84)	559 (43,71)	2.063 (28,01)	1.322 (16,42)	775
Orokorra						
Interviú	167,2 (6,84)	11.436 (15,79)	1.806 (58,92)	6.738 (15,79)	1.806 (9,51)	1.087
Ekonomia						
Empresa XXI	9,3 (90,83)	8.447 (7,02)	593 (65,27)	5.513 (26,54)	2.242 (1,17)	99
Guztira	7.695 (13,51)	1.039.313 (9,88)	102.714 (39,60)	411.560 (30,08)	312.636 (20,44)	212.403

* Parentesi artean %tan

12. taula/grafikoa: ASTEKARIEN ZABALKUNDEA PROBINTZIAKA 1996



13. taula: ASTEKARIEN HERRIALDEKAKO ALDERAKETA ARLOKA

Asterokoak 1993

	HEH	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Gehigarria	72,99%	68,14%	70,70%	76,14%	78,91%
Emakumea	18,77%	22,01%	18,49%	17,64%	15,09%
Telebista	5,87%	6,97%	7,23%	4,51%	5,08%
Musika	0,45%	0,54%	0,52%	0,42%	0,36%
Orokorra	1,10%	1,76%	1,68%	0,58%	0,51%
Ekonomia	0,81%	0,58%	1,38%	0,72%	0,05%

Asterokoak 1996

	HEH	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Gehigarria	75,14%	73,80%	71,04%	77,33%	79,03%
Emakumea	18,25%	17,85%	21,05%	17,52%	15,64%
Telebista	2,42%	3,34%	2,91%	1,60%	2,21%
Musika	1,97%	2,37%	2,27%	1,45%	1,94%
Orokorra	1,44%	1,93%	1,60%	1,30%	1,11%
Ekonomia	0,77%	0,72%	1,13%	0,79%	0,08%

2.4. Gaztelaniaz idatzitako hilabetekariak edo bakanagokoak

Bigarren atalburu honen hasieran esan dugun bezala, 15 aldizkari dira lan honetarako jarritako irizpidearen arabera aintzat hartzekoak atal honetan. Aukeratutako 15 aldizkari horiek eremu osoan 2.676.000 ale zabaltzen dituzte hilero eta HEHan 253.604 (ikus 15 taula). Hau da, hilabekari hauek zabaltzen dituzten ale guztietatik %9,48.

Baina kontuan izan behar da beste aldizkari mordoak argitaratzen dela gaztelaniaz. Garrantzi apur bat izan dezaketenak gutxienez 41 badira. Alde batera utzi ditugun aldizkari horiek guztiak oso tirada txikikoak dira edo oso banaka argitaratzen dira HEHan. Hala eta guztiz ere, eremu osoko zabalkundeko%50 egiten dute. Gure azterketarako jarritako irizpide sailaren barruan ez dira sartzen, eta, horregatik, ez dugu azterketa berezirik egingo.

Hurrengo 14. taulako datuen arabera ikusi daitekeenez, arlo berekoen alderaketa edo konparaketa eginez gero, eremu osoan 56 aldizkari dira eta HEHan salduta zabaltzen direnak, hauetako 12. Beste hirurak doanekoak dira²⁰.

14. taula: HILABETEKARIEN ZABALKUNDEA 1996

Hilabetekariak arloka	Zabalkunde osoa			HEHko Zabalkundea			Alderaketa %etan	
	Aldizkariak	Aleak		Aldizkariak	Aleak		Aldizkariak	Aleak
		Absolutuak (milakotan)	%		Absolutuak (milakotan)	%		
Emakumea	11	1.282	29,70	4	52,4	27,62	36,36	4,09
Apainketa	11	632	14,64	2	36,3	19,12	18,18	5,74
Zientziak	9	1.012	23,45	2	51,1	26,94	22,20	5,05
Orokorra	1	141	3,27	1	26,3	13,85	100	18,62
Zinea	4	229	5,31	1	8,9	4,67	14,29	3,87
Ekonomia	7	67	1,55	1	4,4	2,32	25	6,57
Sendia	13	953	22,08	1	10,4	5,47	7,69	1,09
Guztira	56	4.316	100	12	189,9	100	-	-

Hilabetekarien mailaketa honetan eremu osoan nabarmentzen diren arloak, emakumea, zientziak, apainketa eta sendia dira. Lauren artean ia %90 egiten dute. HEHko eremuaren lehentasunak eta eremu osokoarenak ez dira berdinak. Bost arlo behar dira HEHan %90 osatzeko: emakumeak %27,62, apainketa %19,12, zientziak %26,94, orokorra %13,85, eta sendia %5,47. Guztietatik aldizkari bat nabarmentzekoa da, gai orokorrak dakartzan *Selecciones de Reader's Digest*. Honek eremu osoan zabaltzen direnetatik %18,62 HEHan zabaltzen ditu.

Nabarmentzen direnetakoak dira 1) *Club Rac Vasco Navarro*, 29.760 ale zabaltzen dituelako HEHan eta zabaltzen diren aldizkari guztien artean %11,83 delako. Hemen egina, %93ko zabalkundea du HEHan eta doan zabaltzen da. 2) *Negocios en Navarra*, hemen egina da eta % 95eko zabalkundea du, ia ale guztiak Nafarroan (4.404 ale) zabaltzen dira, baina HEHko eremu osoan %1,78 besterik ez.

Ondorengo 15. taulan, banan-banan zerrendatu ditugu ikuspegi osoa izateko. Aukeratutako aldizkari horiek zabalkunde handienekotik txikienera jarri ditugu, beti ere arloka.

²⁰. Doan banatzen diren *Estrenos Actuales*, 22.631 alerekin, *Club Rac Vasco Navarro* 29.760 alerekin eta *Sthilo Musical* 11.644 alerekin, lehenago aipatutako hamabostetan sartuak daude.

15. taula: HILABETEKARIEN ZABALKUNDEA 1996

Hilabetekaria *	Zabalkunde osoa (milako)	HEHko zabalkunde	Zabalkunde herrialdeka			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Emakumea						
Clara	251	18.057 (7,19)	2.380 (13,18)	6.703 (37,12)	5.061 (28,03)	3.912 (21,66)
Cosmopolitan	165	13.013 (7,89)	2.141 (16,45)	5.469 (42,03)	3.360 (25,82)	2.043 (15,70)
Elle	150	11.063 (7,38)	963 (8,70)	5.027 (45,44)	3.221 (29,12)	1.851 (16,73)
Ragazza	165	10.265 (6,22)	1.334 (13,00)	4.534 (44,17)	2.429 (23,66)	1.967 (19,16)
Dekorazioa						
Micasa (1)	230	19.209 (8,35)	2.090 (10,88)	8.734 (45,47)	5.051 (26,29)	3.334 (17,36)
El Mueble	205	17.072 (8,33)	1.624 (9,51)	6.635 (38,86)	5.070 (29,70)	2.743 (16,07)
Zientzia						
Quo (2)	333	25.600 (7,69)	2.700 (10,55)	12.200 (47,66)	6.500 (25,39)	4.200 (16,41)
Muy Intere- sante	309	25.300 (8,19)	3.300 (13,04)	11.400 (45,06)	6.100 (24,11)	4.500 (17,79)
Ekonomia						
Negocios en Navarra	5	4.466 (89,32)	7 (0,16)	30 (0,67)	25 (0,56)	4.404 (98,61)
Orokorra						
Reader's Digest	141	26.272 (18,63)	3.036 (11,56)	10.446 (39,76)	6.558 (24,96)	6.236 (23,74)
Zinea						
Fotogramas & Video	133	8.869 (6,67)	957 (10,79)	4.330 (48,82)	2.380 (26,84)	1.202 (13,55)
Sendia (3)						
Labores del Hogar	217	10.383 (4,78)	1.654 (15,93)	3.413 (32,87)	3.180 (30,63)	2.141 (20,62)
Dohakoa (4)						
Club Rac Vasco Navarro	32	29.760 (93,00)	2.347 (7,89)	10.328 (34,70)	14.599 (49,06)	2.486 (8,35)
Estrenos Actuales (5)	260	22.631 (8,70)	1.700 (7,51)	7.278 (32,16)	7.464 (32,98)	6.189 (27,35)
Sthilo Musical (6)	80	11.644 (14,56)	1.554 (13,35)	4.757 (40,85)	3.804 (32,67)	1.529 (13,13)
Guztira	2.676	253.604 (9,48)	27.787 (10,96)	101.284 (39,94)	74.802 (29,50)	48.737 (19,22)

* Parentesi artean %tan.

- (1) 1993an ez zen argitaratzen. 1995ean hasia da.
- (2) 1993an ez zen argitaratzen. 1996an hasia da.
- (3) Arlo honetan, aldizkari asko ateratzen da, baina hauek dira HEHan zabaltzen diren ospe dezenteak: *Mia Especiales, Lecturas Especiales, Marie Claire, Telva eta Woman*. Aldizkari hauen zabalkunde, gerturatu arren, ez da iristen jarri ditugun neurrietara.
- (4) Harpideentzako doan den hileroko *Canal + Revista*, ez dugu jakin ahal izan HEHan guztira zenbat banatzen diren. Zabalkunde osoa 4 milioi ingurukoa da.
- (5) 1993an ez zen argitaratzen. 1996an hasia da.
- (6) Bihilabetekaria. Harpideentzat doan da.

Banan-banan erreposoa emanez gero (ikus 15. eta 16. taulak), HEHko rankingean bost aldizkari azaltzen dira %10 inguruko zabalkundearekin: *Club Rac Vasco Navarro* %11,83, *Reader's Digest* %10,44, *Quo* %10,18, *Muy Interesante* %10,06 eta *Estrenos Actuales*, doan banatua, %9.

16. taula: HILABETEKARIEN ZABALKUNDEA HERRIALDEKA 1996

Hilabetekaria	HEH	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Clara	7,18%	8,57%	6,62%	6,77%	8,03%
Cosmopolitan	4,36%	7,71%	5,40%	4,49%	4,19%
Elle	4,40%	3,47%	4,96%	4,31%	3,80%
Ragazza	4,08%	4,80%	4,48%	3,25%	4,04%
Micasa	7,64%	7,52%	8,62%	6,75%	6,84%
El Mueble	6,79%	5,84%	6,55%	6,78%	5,63%
Quo	10,18%	9,72%	12,05%	8,69%	8,62%
Muy Interesante	10,06%	11,88%	11,26%	8,15%	9,23%
Negocios en Navarra	1,78%	0,03%	0,03%	0,03%	9,04%
Reader's Digest	10,44%	10,93%	10,31%	8,77%	12,80%
Fotogramas	3,53%	3,44%	4,28%	3,18%	2,47%
Labores del hogar	4,13%	5,95%	3,37%	4,25%	4,39%
Club Rac VN	11,83%	8,45%	10,20%	19,52%	5,10%
Estrenos Actuales	9,00%	6,12%	7,19%	9,98%	12,70%
Sthilo Musical	4,63%	5,59%	4,70%	5,09%	3,14%
	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%

HEHko herrialde bakoitzeko irakurleen joera bestelakoa den jakiteko asmoz, 16. taulako aldizkari batzuk aukeratu eta bi multzotan jarri ditugu. Bata, irakurketa arinagoa eskatzen dutenen multzoa; hauetan, *Clara*, *Cosmopolitan*, *Elle*, *Ragazza* eta *Labores del Hogar*. Eta bestean, arreta handiagoa eskatzen dutenen multzoa; *Quo*, *Muy Interesante* eta *Reader's Digest*ek osatua.

Irakurketa	HEH	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Arina	24,36	27,55	24,83	23,06	24,45
Arretatsua	30,68	32,53	33,62	25,61	30,65

Joeraz bereizten den herrialdea, Gipuzkoa da. Honek irakurketa arretatsua eskatzen duten aldizkarietan beste herrialdeetakoekin alderatuz, batez bestekotik %83,5ean gelditzen da.

17. taula: HILABETEKARIEN ZABALKUNDEA 1993

Hilerokoak *	Zabalkunde osoa (milako)	HEHko zabalkunde	Zabalkunde herrialdeka			
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Emakumea						
Clara	309	19.436 (6,29)	1.947 (10,02)	7.014 (36,09)	5.778 (29,73)	4.697 (24,17)
Cosmopolitan	183	14.841 (8,11)	2.342 (15,78)	6.167 (41,55)	3.953 (26,64)	2.379 (16,03)
Elle (1)	112	8.534 (7,62)	750 (8,79)	3.819 (44,75)	2.598 (30,44)	1.366 (16,01)
Ragazza (1)	141	7.995 (5,67)	1.100 (13,76)	3.243 (40,56)	2.242 (28,04)	1.410 (17,64)
Dekorazioa						
El Mueble (1)	97	7.421 (7,65)	708 (9,54)	2.939 (39,60)	2.270 (30,59)	1.504 (20,27)
Zientzia						
Muy Interesante	288,6	23.059 (7,99)	2.482 (10,76)	10.909 (47,31)	5.541 (24,03)	4.127 (17,90)
Ekonomia						
Negocios en Navarra A	4,9	4.622 (94,32)	8 (0,17)	24 (0,52)	25 (0,54)	4.565 (98,77)
Orokorra						
Reader's Digest (1)	110	7.655 (6,96)	1.024 (13,38)	3.150 (41,15)	2.104 (27,49)	1.377 (17,99)
Zinea						
Fotogramas & Video	137,5 (7,29)	10.024 (4,25)	426 (54,32)	5.445 (27,43)	2.750 (14,00)	1.403
Sendia						
Labores del Hogar	219 (4,57)	10.008 (11,60)	1.161 (32,38)	3.241 (34,13)	3.416 (21,88)	2.190
Dohakoa						
Club Rac Vasco Navarro	29,2	28.864 (98,85)	1.720 (5,96)	8.760 (30,35)	15.999 (55,43)	2.386 (8,27)
Sthilo 79 Musical	12.158 (15,39)	1.778 (14,62)	4.724 (38,86)	4.005 (32,94)	1.651 (13,58)	
Guztira	1.710 (9,04)	154.617 (9,99)	15.446 (38,44)	59.435 (32,78)	50.681 (18,79)	29.055

* Parentesi artean %tan.

(1) Zabalkunde irizpideak ez bete arren, 1996ko kopuruekin alderatu ahal izateko jarri ditugu.

Bilakaerari dagokionez, 1993ko zabalkundearekin alderatuz (ikus 15. eta 16. taulak), gorantz doaz *Elle* %29,63 (8.534 ale), *Ragazza* %28,39 (7.995 ale), *El Mueble* %230,0 (7.421 ale), *Muy Interesante* %9,72 (2.241 ale), *Reader's Digest* %343,0 (7.655 ale); *Micasak* (1995ean hasia) 19.209 ale zabaltzen ditu, lehenagotik datorren *El Mueblek* baino 2.137 ale gehiago *Quok* (1996an hasia) 25.600 ale zabaltzen ditu, lehenagokoa den *Muy Interesantek* baino 300 ale gehiago. *Estrenos Actuales* ere berria da, 1996an hasi eta 22.631 ale zabaltzen ditu. *Micasa*, *Quo* eta *Estrenos Actuales* lehenagotik argitaratzen ziren arlo berekoak baino indartsuago azaldu dira. Behera egin dutenak ere badira. Euren artean beherakada nabaria izan dutenak hauek dira: *Clara* %7,1 (1.379 ale), *Cosmopolitan* %26,1 (1.155 ale) eta *Fotogramas & Video* %11,5 (3.871 ale).

3. GAZTELANIAZKO PRENTSARI HARRERA

Atalburu honetako asmoa da gaztelaniaz idatzitako prentsak duen audientzia beste hedabide batzuek dutenarekin alderatzea, HEHko eremuan. Harreraren azterketa honetan sartzen ditugun hedabideak dira prentsa idatzia, irratia eta telebista. Eta prentsa idatziak zein eragin duen azaldu nahi dugunez, irratiak eta telebistak duten eraginarekin alderatuko dugu.

Ez dago zalantzarik hedabideak orokorrean jende askorengana iristen direla. Bakoi-tzaren eragina zein den jakiteko, bi ikuspegitatik egin dezakegu azterketa: banatzen den ale kopurua kontuan izanik edo zenbat bezerok jartzen duten euren arreta kontuan harturik. Ale bat zabaltzeak, irrati bat edo telebistako kate bat jartzeak, ez du esan nahi lagun bakarrak irakurri, entzun edo ikusiko duenik. Zabalkundea gauza bat da eta jartzen zaion arreta beste bat. Jendeak zer arreta jartzen dion azaltzea litzateke egokiena.

Audientzia eta zabalkundea, bi erreferentzia adierazgarri dira. Audientziak neurtzen du prentsari arreta jartzen dion jende kopurua. Zabalkundeak adierazten du prentsak zenbat aleko zabalpena duen. Aurretik²¹ ikusi dugunez, batzuen eta besteen erreferentziak ezberdina diren arren antzerako ondorioak ateratzera eraman gaituzte.

Jendeak eguneroko hedabideetan jartzen duen arretaren neurketak CIESek egiten ditu. Guk CIESen audientzia datuak erabili ditugu. EGMk²² baino eremu zabalagoak hartuaz eta lagin handiagoarekin lan egiten du CIESek HEHko azterketak egiten dituenean eta, beraz, ziurtasun gehiago bermatzen duela uste dugu.

Bestalde, EGMek 1993a arte egindako audientzia azterketek diote eguneroko prentsa idatzian aleko 3,88 eta 4,08 arteko batez besteko irakurleak dituztela. Beraiek diotenez, zabalkunde handia edo txikia duten argitalpenek ez dute ematen *ratio* berdina. Aldizkarien neurketetan egindako audientzia azterketak, berriz 4,8ko batez bestekoa ematen omen du. Baina aldizkari batetik bestera aldeak handiagoak izaten dira, orrialde kopurua, salneurriak, edukiak, maiztasuna eta abar, bata bestearekin egunkariekin beraien artean baino ezberdintasun handiagoak dituztelako.

Aldizkariak duten audientziei buruz esan daitekeenak azterketa zehatza eskatzen du. Zabalkundeari buruz ditugun datuak, audientziari buruzkoak baino ziurragoak eta zehatzago-

21. 2.2. Ataleko 8. orritik 17. orrira

22. EGM. Estudio General de Medios.

ak dira. Zeren CIESek ez du aldizkariaren azterketarik agertzen eta ez dugu aldizkariaren audientziarik lortu. Beraz, aurretik azaldu ditugun zabalkunde datuak erabiliz egin ditugu estimazioak. Maiztasun urriagoa dutelako eragin txikiagoa badute ere, interesgarria iruditu zaigu hurbilpen bat egitea.

Sarreraren esan duguna gogoratzuz, azterketa honetako aztergaia gaztelaniazko prentsa idatziaren zabalkunde da. Baina biztanleriak prentsari jartzen dion arretari buruz ari garen atal honetan ezin dugu ahaztu biztanleri honen %37,16a euskaldun²³ eleanizduna dela. Horregatik eta ikuspegi orokorra gal ez dezagun, egokitzat jo dugu prentsak euskarari ematen dion lekuari buruz bilduta dauden datuak ere kontuan hartzea.

Horrela, gure azterketa egiteko gaztelaniazko prentsaren harrerari buruzko atalburu hau bitan zatitu dugu: egunero kaleratzen diren hedabideek duten audientzia alde batetik, eta astebete edo gehiagoko maiztasunarekin argitaratzen diren aldizkariak duten zabalkunde, bestetik. Eta atal bakoitzean euskarak duen presentzia.

3.1. Eguneroko hedabideen audientzia

Atal honetan biztanleriak hedabide mota bakoitzari jartzen dion arreta aztertuko dugu. Hedabide mota bakoitzak duen audientzia alegia. Hau da, egunkari irakurleek, irrati entzuleek eta telebista ikusentzuleek zenbateko kopuruak egiten dituzten arakatu dugu. Azterketa hau egiteko, lehen esan bezala CIESen azterketetan ematen diren datuak erabili ditugu.

Hasteko, garbi utzi nahi dugu CIESen azterketak aldizkaririk ez duela kontuan hartzen: egunkariak, irratiak eta telebistak bakarrik arakatzeko ditu. Aldizkari eta gainerako gizarte hedabide batzuk, adibidez elektronikoak, kanpoan uzten ditu. Horregatik, irakurleen multzoa aipatzerakoan "prentsa irakurleak" baino zehatzagoa iruditu zaigu "egunkari irakurleak" izendatzea eta hemendik aurrera honela izendatuko ditugu, eguneroko prentsa bakarrik baita hemen kontuan hartzen dena.

3.1.1. 1997ko audientzia

Hedabideek gizakien zati handi baten arreta jasotzen dute. HEHko hamalau urtez gainerako 2.298.000 biztanleetatik, 1.915.000 telebista ikusentzule dira; 1.268.000 irrati entzule eta 1.238.000 egunkari irakurle. Esan beharrik ez dago norbanako bakoitza hiru hedabide ezberdinetan bezero izan daitekeela edo bat bakarrean ere ez. Baita hemen aipatu ez direnetan ere. Norbanakoaren aukeren artean dago hori.

3.1.2. Bilakaera

Azaldu duguna 1997. urteak ematen duen egoera da. Ondoren, 1991tik 1997ra hedabide mota bakoitzaren audientziak zer nolako bilakaera izan duen agertzen saiatu gara (ikus 20. taula).

23. Hamabost urtez goiko euskal hiztun kopurua hartu dugu audientzia potentzial bezela: euskaldun elebkarrez gain, euskaldun hartzaileak eta elebidunak. Guzti hauek euskaraz baliatzeko gai direla pentsatzen dugu, irakurtzeko gai batez ere, eta HEHan 823.400 pertsona dira.

20. taula: HEDABIDEEN BILAKAERA HEHAN

14 urtetik gorakoak	1991		1994		1997		91/97
	Milakotan	%	Milakotan	%	Milakotan	%	%
Biztanleak	2.128	-	2.280	-	2.298	-	7,9
Egunkari irakurleak	1.177	55,3	1.228	53,9	1.238	53,9	5,2
Irrati entzuleak	1.285	60,4	1.267	55,6	1.268	55,2	-1,3
Telebista ikusentzuleak	1.795	84,4	1.891	83,0	1.915	83,4	6,7

1997ko datuetan ikus daitekeenez, telebista da erakarmen handiena duena, hamalau urtetik gorako biztanleen %83,40, bigarrenik irrati entzuleak dira %55,20kin²⁴ eta azkenik egunkari irakurleak %53,90. Egunkari irakurleak baino %55 gehiago dira telebista ikusentzuleak. Irrati entzuleak ez diete egunkari irakurleei alde handirik ateratzen.

Dauzkagun datuen arabera (ikus 20. taula) hamalau urtez gorako biztanleen kopuruak gora egin du. Audientziek ere orokorrean gora egin dute. Baina biztanleriaren arretaren bila-kaerarekiko alderaketa eginez gero konturatzen gara audientziaren joerak ez duela izan aldaketa azpimarragarriak, irrati entzuleetan ez bada. Irrati entzuleak %60,4 izatetik %55,2 izatera jaitsi dira. Hau da, nahiz biztanleak 170.000 ugaldu, irrati entzuleak 17.000 gutxiago dira, beraz %9,4 gutxiago erlatiboki. Osterantzean ez dago aldaketa aipagarriak, eta erlatiboki audientziak ez du izan biztanleek hainbateko gorakadarik.

Bilakaera ezberdinak agertzen direnez, komenigarritzat jo dugu ikustea herrialdeka alderik badagoen eta baldin badago, zer arlotan dagoen aztertzea. Horretarako ondoko taulan 1991 eta 1997ko datuak alderatu ditugu (ikus 21. taula).

21. taula: BILAKAERA HERRIALDEKA

14 urtetik gorakoak	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			Nafarroa		
	1991	1997	Aldea (%)	1991	1997	Aldea (%)	1991	1997	Aldea (%)	1991	1997	Aldea (%)
Biztanleak (milakotan)	214	242	13,0	946	1002	5,9	558	590	5,7	413	464	12,3
Egunkari irakurleak (%)	44,2	47,2	6,8	49,9	51,2	2,6	65,2	60,7	-7,4	60,0	54,8	-9,5
Irrati entzuleak (%)	60,3	55,7	-8,3	61,4	58,1	-5,7	60,3	55,0	-9,6	58,3	49,1	-18,7
TB ikusentzuleak (%)	85,5	80,4	-6,3	84,5	84,0	0,6	82,2	82,5	0,4	86,6	84,8	-2,1

Herrialde guztietan ugaldu egin da biztanleria, baina proportzioan Bizkaian eta Gipuzkoan halako bi baino gehiago ugaldu da Araban eta Nafarroan. Haiek %5,9 eta %5,7 eta hauek %13 eta %12,3ko gorakada izan dute, hurrenez hurren.

24. Frantzian %82,7 omen dira irrati entzuleak, Mediametrie institutoak egindako inkesta bati buruz *Le Parisien*ek dionez (*Egunkaria*. 1998ko azaroak 19).

Irrati entzuleei dagokienez, guztiek egin dute behera eta Nafarroan beste probintzietan baino nabarmenago.

Egunkari irakurleen kasuan, Araban eta Bizkaian gorantz egin duten bitartean, Gipuzkoan eta Nafarroan behera egin dute. Hala eta guztiz ere, hauetan irakurle proportzioak handiagoa izaten jarraitzen du eta irakurleak irrati entzuleak baino gehiago izaten jarraitzen dute, Araban eta Bizkaian ez bezala.

Telebista ikusentzuleen artean Arabak egiten du behera %6,3, eta Nafarroak %2,1. Arabarrak dira, proportzinalki, telebista gutxien ikusten dutenak, gipuzkoarren aurretik %80,4 eta %82,5.

3.1.3. Telebistaren gailentasuna egunerokoetan

Lehen esan dugun bezala, hedabide guztion artean biztanle gehienek batez ere telebista ikusteko joera dute herrialde guztietan. Telebista ikusle izatetik egunkari irakurle izatera alde handia dago herrialdeen artean. Telebista ikusleak 100 direla jota, hauetatik egunkari irakurleak Gipuzkoan %74 dira, Nafarroan %65, Bizkaian %61 eta Araban %59. Aldeak nabariak dira.

3.1.4. Euskararen presentzia eguneroko hedabideetan

Euskararen presentziari buruz zertzelada batzu besterik ez dago ematerik. Bi hedabide agertzen zaizkigu Euskalerrri mailakoak, euskara bakarrik erabiltzen dutenak eta gaztelania darabiltenak euskara gutxi erabiltzen dute.

Egunkarien artean euskaraz argitaratzen den *Euskaldunon Egunkaria* CIESen audientzia neurketetan sartua dago. 26.000 lagunek irakurtzen dute egunkari hori, hau da, egunkari irakurle guztietatik %2,10ek. Beste egunkariak euskaraz ezer gutxi dakarte.

Bizkaian zabaltzen diren egunkariak buruz, Maria Jose Cantalapedrak dio euskararen erabilera "hutsaren hurrengoa"²⁵ dela eta 1995 urterako datu orokor hauek ematen ditu: El *Correok* %0,02; *Deiak* %2,4 eta *Eginek* %10 erabiltzen dutela. Beste egunkariak, ezer ere ez. Gipuzkoako eta Nafarroako egunkarietako euskararen presentziari buruz ez dugu datu zehatzirik aurkitu.

Telebisten esparruan, CIESen audientzia neurketetan euskaraz emititzen duen *ETB1* ere sartua dago. Honek 202.000 ikusentzule ditu, beraz telebista ikusentzuleen %10,55 inguruko audientzia du. *EITBk* argitaratutako txostenean²⁶, berriz, %7,5eko audientzia duela esaten du. Beste telebistetan ez dute euskararen ia aztarnarik ematen. Badira zenbait herri-telebista euskaraz ari direnak, baina eremu urria hartzen dute, ordu gutxi emititzen dituzte eta audientzietan ez dira agertzen. Hala ere, emititzen duten orduetan eta guneetan audientzia handia dute, adibidez Arrasate Telebista (*ATB*) %19ra heltzen da eta Arrasaten hirugarrena da *rankingean TVE1* eta *ETB2*ren atzetik.

Irratien artean euskaraz emititzen duten *Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztea* CIESen audientzia neurketetan sartuak daude. Hauek 132.000 entzule izanik entzuleen %10,41 inguruko merkatuko kuota dute. Euskaraz emititzen duten irrati gehiago badira, adibidez hanbat

25. CANTALAPIEDRA, M. J. *La información local en los periódicos de Bizkaia*, 119-120 orriak.

26. Balance 97ko Txostena. (*Telebista nº extraordinario*. Enero 1998 nº 7).

udal irrati edo *Arrate, Bizkaia, Euskalerría, Xorroxin* eta abar. Baita emisio partzialak euskaraz dituztenak ere, baina hauen audientzia neurketarik ez dugu eskuratu. Euskaraz diren irrati gehienak biztanle gutxiko herrietan kokatuak daude. Beraz, euren eremuak herri-telebistenak baino handiagoak izan arren, ez dute audientzia handirik.

Behar bada euskarazko hedabideen audientziak ari garenean zuzenagoa litzateke euskal hiztunen kopurua²⁷ erreferentzi modura erabiltzea eta ez biztanleria osoa.

3.2. Prentsa idatziaren zabalkundea

Aurreko atalean egunkarien, irratiaren eta telebisten zabalpena aztertu dugu, audientziaren ikuspuntutik. Atal honetan gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundea izango dugu kontuan.

Guk aldizkariaren zabalkundeari buruz ditugun datuak, audientziari buruzkoak baino ziu-rragoak eta zehatzagoak direnez, atal honetan zabalkundeari buruzko datuetan oinarrituko gara.

Prentsa idatziak biztanleen arabera duen zabalkundea aztertzerakoan, zalantza sortu zaigu kalkulua biztanleko ala sendiko egin. Audientziaren azterketan norbanakoak duen joera jakitea da egokiena, baina zabalkundeaz gabiltzanean, garbi dago sendi bereko pertsona ezberdinek ez dutela ale bera erosiko eta sendiko norbanako bakoitzak orokorrean ale berberak irakurriko dituela. Horregatik, zabalkundea jakiteko kalkuloak sendiko²⁸ egin ditugu (Ikus 22. taula).

3.2.1. Eguneroko prentsa idatziaren zabalkundea sendiko

22. taula: GAZTELANIAZ IDATZITAKO PRENTSAREN ZABALKUNDEA SENDIKO 1996

Maiztasuna	HEH	Araba	Bizkaia	Gizpuzkoa	Nafarroa
Egunkariak	0,53	0,45	0,48	0,59	0,58
Asterokoak	1,13	1	1,03	1,35	1,17
Hilerokoak	0,29	0,3	0,27	0,34	0,28

Gaztelaniazko prentsa idatziaren zabalkundearen ikuspegitik, HEHan garrantzi handiena hartzen dutenak egunero argitaratzen direnak dira, zalantza izpirik gabe. Astekariek sendi bakoitzeko 1,13 ale zabaldu arren, egunkariak egunero 0,53 ale zabaltzen dituzte eta hauek 3,18 aldiz gehiago dira aste bakoitzeko. Eta honela alderatzea oso zuhurra ez bada ere, ideia bat ematen digu batzuen eta besteen garrantziaz.

27. HEHan euskal hiztunen audientzia potentziala biztanleri osoaren %37,16 da.

28. Sendi kopurua EUSTAT 1998tik hartu dugu EAEko kasuan eta Nafarroako kasuan lanaren egilearen estimazioa da, Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren 1996ko Euskal Herriko Soziologia inkesta eta Eustat 1998 iturriez baliatuz.

Astekarien arloan gehigarrien zabalkundea batez beste 0,85 alera iristen da, sendiko. Hau da, egunerokoak halako ia bi aldiz gehiago zabaltzen dira gehigarriak. Zabalkunde handiena dutenak banaka hartuta, gehigarrietatik “*El Suplemento Semanal*” 0,39 ale eta “*El Semanal TV*” 0,38 ale gailentzen dira. Asteroko emakumeen arlokoak 0,21 ale zabaltzen dira. Besteak urrun gelditzen dira zabalkunde honetatik.

3.2.2. Herrialdeen arteko aldeak

Herrialdeka, batez besteko zabalkundeaz gainera agertzen direnak Gipuzkoa eta Nafarroa dira egunkarietan eta astekarietan eta Gipuzkoa bakarrik hilerokoetan. Batez ere Gipuzkoa gailentzen da beste herrialde guztien artean egunkariak, astekariak edo hilabete-kariak sendiko zabalkundeak. Gipuzkoaren atzetik Nafarroa agertzen zaigu.

Aldizkari bakoitzaren herrialdeko zabalkunde datuak aztertzean jendearen arretari buruz ikusi duguna, aurreko parrafoan esan dugunaren oso antzekoa da. Beraz, irakurzaletasunari dagokionez gipuzkoarrak lehenengo eta nafarrak bigarren sailkatzen dira.

3.2.3. Euskaraz idatzitako prentsaren zabalkundea sendiko

Euskaraz idatzitako prentsaren presentziari dagokionez hurbilpen bat egin ahal izateko hainbat datu bildu ditugu urrengo taulan (ikus 23. taula). Ezin izan ditugu bildu hilabete baino bakanago argitaratzen diren herri aldizkariak datuak ez eta ere euskaraz idatzitako beste hainbat aldizkariak. Nolanahi ere ez dira asko. Beraz, datu falta honengatik, ikuspegi bat emateko zerbitu dezakeen arren hurbilpen bat baino ez da.

23. taula: EUSKARAZ IDATZITAKO PRENTSAREN ZABALKUNDEA SENDIKO 1996

Maiztasuna	HEH	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Egunkariak	0,013	0,009	0,011	0,023	0,005
Astekariak (1)	0,085	0,011	0,031	0,242	0,042
Hilabetekariak	0,061	0,022	0,048	0,031	0,026

(1) Multzotik honetan daude *Argia* eta *Herri* aldizkarietako astekariak eta hamabostekariak. Erabilitako iturriak hauek izan dira: Jose Felix Diaz de Tuesta. Euskarazko Prentsa idatzia 1996 eta IragARKO, aldizkariaren egoera 1997.

Taula hau aurrekoarekin konparatuz, begi bistan agertzen da gaztelaniazko aldizkariak aldean euskaraz argitaratzen diren aldizkariak zabalkundearen eskasia. Gaztelaniazkoetara iristeko euskarazko prentsaren zabalkundea biderkatu beharko litzateke: egunkarietan 41 aldiz, “astekarietan” 13,3 aldiz eta hilabete-karietan 5 aldiz. Ez gara sartuko herrialde bakoitzeko zehaztasunetan. Apunte bat bakarrik eginez, esango dugu herrialde guztiak ez daude-la egoera berdinean, bakoitzak bere egoera berezia duela baiziki.

Kontuan hartzeko gauza da gaztelaniazkoen balizko irakurleak, HEHan, euskarazkoenak baino 2,7 aldiz gehiago direla. Baina faktore korrektorea erabilita ere, zabalkundeak alde handia dago gaztelaniaz idatzitakoak alde.

4. ONDORIOAK

Lehenengo partea analisi formala eta estatistikoa izanik, oso deskriptiboa da. Hala eta guztiz ere, datu biketa derrigorrezkoa zitzaigun helburua betetzeko: gaztelaniazko prentsa idatziaren HEHko zabalkundearen xehetasunak ezagutzea. Bigarren partean, datuak gehiago hausnartzen saiatu gara.

Egin dugun lanaren testutik ateratzen diren ondorio orokorrenak hurrengo lerroetan laburtzen ditugu.

1. Prentsa idatzian gaztelaniaz banatzen diren 18,84 milioi aleetatik 1,68 milioi ale HEHan zabaltzen dira. Horietatik garrantzi handiena egunkariak dute: 452 mila egunkari ale zabaltzen dira egunero, 972 mila astekari ale astero eta 252 mila hilabetekari ale hilerio. Egunkariak %11,8 zabaltzen da HEHan eta kontuan hartu behar da HEHko biztanleria ez dela gaztelaniaz idatzitako prentsak hartzen duen eremu osoko %7ra iristen.

Gehigarriak deitzen ditugun astekariak dira astekari guztien artean gehien zabaltzen direnak, %75 HEHan.

Eremu osoan eta HEHko eremuan prentsak duen zabalkundea alderatuz gero, ezberdintasunak ageri dira. HEHan gai orokorrek eta zientzietako prentsak erlatiboki zabalkunde handiagoa du eremu osoan baino. Eta alderantziz gertatzen da kirolekako eta emakumeei zuzendutako prentsarekin, hau da, HEHko eremuan gutxiago zabaltzen da eremu osoan baino.

2. Gaztelaniaz idatzitako prentsa guztia gaien arabera sailkatuz gero, ez dute garrantzi berdina egunkariak, astekariak edo hilabetekariak. Gai orokorrak gailentzen dira egunkarietan eta hainbat gai berezi berorien parte dira. Zabalkunde indartsua duten gai bereziko egunkari bakarrak kirolekakoak dira.

Astekariak, gai orokorretan eta emakumeei zuzendutako gaietan gailentzen dira. Gai orokorreko astekari guztien artean, bi gehigarri guztien %68 egiten dute. Hilabetekariak emakumeei eta zientziei buruzko gaietan nabarmentzen dira.

3. HEHan orokorrean, gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundearen bilakaerari dagokionez, hilabetekariak gorantzako joera dute eta astekariak beheraka egiten ari dira. Egunkariak, berriz, mantentzeko joera agertzen dute.

Egunkariak eusteko joera hau konpentsatua dago herrialdeen artean. Baina aldeak azaltzen dira beraien artean. Egunkariak zabalkundea gorantz doa Araban eta Bizkaian eta beherantz Gipuzkoan eta Nafarroan. Hala eta guztiz ere, azken hauetan proportzionalki zabalkundea handiagoa da beste bietan baino.

4. HEHan zabaltzen den prentsa ez da hemen argitaratua, egunkari batzuk izan ezik. Aldizkariak, ia denak kanpotik etortzen dira. Herrialde bakoitzak bertan argitaratutako bere egunkari liderra du, Araban izan ezik, hemen Bizkaiko berbera baita liderra.

5. Prentsa idatziaren zabalkunde eta audientzia datuekin irakurzaletasuna ondorioztatuz esan dezakegu gipuzkoarren eta nafararren irakurzaletasuna nabarmentzen dela egunkariak buruz. Baina ez bakarrik egunkariekin, aldizkariekin ere agertzen da bi herrialde hauetako irakurzaletasunaren gailentze hau. Azpimarratzekoa da batez ere gipuzkoarrek duten alde. Hauek, ia %20 inguruan gaintzen dute HEHko batez bestekoa

6. Zabalkundearen azterketatik ateratako ondorioak baieztatu egiten dira, audientziaren azterketatik ateratako ondorioekin.

7. Eguneroko prentsa idatziak HEHko audientzia potentzialaren %53,9ko esparrua hartzen du. Irrati entzuleak %55,2 eta telebista ikusleak %83,4. Orokorrean, audientzia kopuru aldetik telebista ikusleek dute parterik garrantzitsuena. Telebista, %16,6k bakarrik ez du ikusten eta herrialde batetik bestera ez dago nabarmentzea merezi duen besteko alderik. Irrati entzuleek orokorrean beherantzako joera dute, nafartarren artean batez ere.

Eguneroko prentsaren audientziaren datuak kontuan izanik, esan daiteke hedabideak nolabait gizartearen giltzarria ere badirela. Beste era batera esanda, nahiko zaila dela edo-norentzat hedabideen eraginetik kanpo bizitzea.

HEHan ehun sendiren artean 54 egunkari, 113 astekari eta 29 hilabetekari hartzen dituzte, gaztelaniaz idatzitakoak.

8. Euskaraz zabaltzen den prentsa, aldiz, juxtu-juxtu ez bada ere, oker handi gabe, horrela da: ehun sendiko 1,3 egunkari, 8,5 astekari eta 6,1 hilabetekari. Euskaraz idatzitako prentsari buruz, esan daiteke eskaintza ere ez dela handia. Adibidez, OJDren kontrolatan ez da ageri *Euskaldunon Egunkaria* ez den euskaraz idatzitako bestelako prentsarik.

Euskarazko prentsa idatziaren osagarri modura, esan daiteke telebista ikusleen edo irrati entzuleen euskarazko audientzia orokorrean %10 ingurukoa dela. Beste %90 gaztelaniazkoa da. Dagoen eskaintzari toka dakiokkeen baino audientzia handiagoa da euskarazko hedabide hauena.

9. Gaztelaniazko prentsaren ondoan euskarazkoaren zabalkunde urria ikusirik, eta Jose Inazio Basterretxearen esanetan²⁹ geroa ere iluna datorrenez, guri sortu zaigun galdera da ea "euskararen unibertsorik" praktikan ba ote den. Ikus daitekenez, borondate hutsez egiten ez den euskararen unibertso baten defentsarik egitea zaila da.

10. Lehen aipatu dugu herrialde batetik bestera aldeak badaudela. Alde horien arrazoiak zein izan daitezkeen jakitea erakargarria da. Zer aldagaik esplikatu ditzaken aldeak aztertzeak asko kilikatu gaitu, baina beste baterako utzi dugu. Geroago egin beharreko lana izango da. Hipotesi modura, herritarren errenta mailak edo euskaradunen kopuruak baino biztanlegoaren formazioak zerikusi zuzenagoa izan ote dezakeen iruditzen zaigu.

5. BIBLIOGRAFIA

ALDAMIZ-ETXEBERRIA, Estepan. "Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian". *Jakin 22an* Anaidia Arantzazu, 1982. 44-51 orriak

ARANA, Edorta; INIGO, Jose Jabier. *Publizitatea eta hizkuntza ez normalizatuak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 1992.

ARANZABAL, Joxe. *Euskarazko Herri Prentsa. Kazetagintza-mintegia*, Leioa, 1995.

ARKO. *Herri komunikabideei buruzko II. jardunaldiak*, Arrasate, ARKO 1993.

Balance 97ko Txostena, Telebista n^o extraordinario, EITB, Elorrio enero 1998.

29. "Informazioaren multinazionalak sumisio-kultura bilatzen dute. Panorama benetan beltza gure begien aurrekoa, konpromiso handiak exijitzen dituen". Jose Inazio Basterretxea. *Komunikazioaren eta Informazioaren Oinarriak*, UEU, Bilbo 1998.

- BASTERRETXEA, Jose Inazio. *Komunikazioaren eta Informazioaren Oinarriak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1998.
- Boletín de la Oficina de Justificación de la Difusión*, S.A. (OJD). Madrid, 1993-1994-1996.
- BRYANT eta ZILLAN. *Los efectos de los medios de comunicación*, Paidós, Barcelona, 1996.
- CANTALAPIEDRA, María José. *La información local en los periódicos de Bizkaia*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 1996.
- Centro de Investigaciones y Estudios Sociológicos (CIES; S. L.). *Estudios de opinión y de mercado*, Iruñea/Pamplona, 1991-1995-1997
- COCA, César. y MARTÍNEZ, Florencio.(Coor). *Los medios de comunicación en el País Vasco*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 1993
- DÍAZ de TUESTA, Jose Felix. "Euskarazko prentsa idatzia", Arrasate, 1996, (Euskararen Aholku Batzordearen enkarguz egindako txostena).
- DÍAZ NOCI, Javier. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995.
- DÍAZ NOCI, Javier. *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.
- DIEZHANDINO, María Pilar. *El quehacer informativo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 1994.
- DIEZHANDINO, María Pilar; COCA, César; BEZUNARTEA, Ofa. *La nueva información. Análisis de la evolución temática de los contenidos de la prensa vasca (1974-1995)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa 1996.
- EDO, Concha. *La crisis de la prensa diaria*, Ariel Comunicación, Barcelona, 1995.
- EGM-Asociación para la Investigación de los Medios de Comunicación. Madrid.
- Encuesta Sociolingüística de Euskal Herria 1996: la continuidad del euskara II. Editado por el Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra y el Institut Culturel Basque, 1997.
- EUSTAT. Euskal urtekari estatistikoa 97/98, Eustat, Gasteiz-Vitoria, 1998.
- GUERIN, Serge. *La cyberpresse. La presse et l'écrit off line*, Hermes, Paris, 1996.
- ITURRIOTZ, Ander. "Komunikabideen eraginari buruzko ikerketa: ikuspegi historiko bat", *Uztaro 3n* UEU, Bilbo, 1991. 109-122 orriak
- LARRAÑAGA, Jotxo; GARBANTXO, Miren; ARANGUREN, Asier. "Sei herri aldizkari: edukin azterketaren bidetik hurbilketa bat", *Mediatika 6en*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997. 15-40 orriak
- MACIA MERCADE, Juan. *La comunicación local y regional: dinámica de la estructura de la información en la España de las autonomías*, Ciencia 3, Madrid, 1993.
- MACIA MERCADE, Juan. *La comunicación regional y local*, Ciencia 3, Madrid, 1995
- MATEO, Rosario de. *Periodismo empresarial: el consumo de prensa escrita, análisis de caso*, Mitre, Barcelona, 1984.
- MESO, Koldo; DÍAZ NOCI, Javier y ARMAÑANZAS, Emiliana. *El periodismo electrónico. Información y servicios multimedia en la era del ciberespacio*, Ariel, Barcelona, 1996.
- OREGI, Sabin. *Contribution des médias basques a l'extension fonctionnelle de l'euskara: de l'intérêt des socio-types linguistiques. Analyse prospective*. (Inprentan).
- OREGI, Sabin. "Análisis de lanzamiento de "Navarra Hoy", in *Cuadernos de Sección. Medios de Comunicación nº 4*, Eusko Ikaskuntza, 1991, 140-162 orriak

OREGI, Sabin. "Euskarazko herri prentsa. Banaketa eta finantzaketara hurbilpena", *Mediatika 6en*, Eusko Ikaskuntza, 1997. 41-50 orriak.

ZUBIRIA, Pello. "Euskal prentsaren desafio berriak", *Jakin 96n*, Jakinkizunak, Donostia 63-70 orriak.